

astejorran

• IÑIGO URKULLU •

[EAJ-KO PARLAMENTARIOA EUSKO LEGBILTZARREAN]

Adierazpen Unibertsaleko eskubide eta betebeharrak

Gizarte demokratiko batek aurrena bermatu eta errespetarazi behar dituenak gizabanakoaren eskubideak direlako uste sendoa dut. Funtsezkoak dira, ez bairik gabe. Arestian Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren berrogeita hamargarren urteurrena ospatu dugu. Adierazpen hori xede erkide gisa agertzen zaie herri eta nazio guztiei, hots: guztiak ahalegindu behar dira, hala gizabanakoei nola instituzioei, aipatu adierazpenean iradokita, hezkuntzaren bidez eskubide eta askatasun horiekiko begirunea susta dezaten.

Baina ohituta gaude gizabanakoen eskubideetan ekin egiten, izan ere ematen diegun arreta guztia merezi ere merezi dute; baina zeharo ahazten zaizkigu beraiei datxezkien betebeharrak edo gizabanakoa eta gizartearen arteko harremanak aldeztu dituzten eskubideak. Ezen, Adierazpen Unibertsala aztertzen ari delarik Rene Cossik dioen bezala, «gizaba-

nakoaren erabateko garapen askea erkidego baten parte izan eta berorrekiko betebeharrak betetzen dituenen baino ezin da gauzatu».

1985etik NBEan lan-talde batek bere gain hartu du gizabanako eta taldeen eskubide eta betebeharrei eta funtsezko askatasunei buruzko adierazpen bat idazteko ardura. Uste dut ekin egin behar dugula denok halako oinarriko esparruak bilatzen non, Euskadiko giza eskubideen gaur egungo egoera hobetzea ahalbide dezaten. Baina artikulua guztietan hori. Ahaztu barik, erkidegoarekiko betebeharrak eta gainerakoen eskubide eta askatasunekiko begirunea eta aintzatespena ziurtatu beharra ere badaudela.

Horrexegatik uste dut guztiok hartu behar dugula, erabat normalduriko egoera politikoa lortzeko ahalegina areagotzeko konpromisoa, halako eraz ezen, funtsezko Giza Eskubideen adierazpen-sail osoko edozein artikuluren urratzea sasoi bateko oroipen bat baino izan ez dadin.

↑
 Guztiok hartu behar dugu erabat normalduriko egoera politikoa lortzeko ahalegina areagotzeko konpromisoa
 ↓

• CARMELO BARRIO •

[EAEKO PPKO IDAZKARI NAGUSIA]

Erakundeen izena

Herriaren ordezkariak guztien ongia lortzeko egiten dituzten ahaleginen etengabeko adierazpidea izan behar dute erakunde demokratikoei, eta, herriarren artean ahalik eta sinesgarritasun handiena lortze aldera, herritar guztiengana zuzendu behar dira.

Eta, hain zuzen ere, horrek goraipatzen eta balioesten ditu herritarrek ordezkatzeko dituzten ganbera eta foroak, hala nola administrazio horiek guztiak. Alderdi politikoen bidez sortu dira, baina ez haien nahiak betetzeko..

Euskadin, ordea, azken garaiotan erakundeek kalte egitearen eta izena galaraztearen aldeko apustu alderdikoiaren lekuko izan gara. Lizarrako Itunera bildutako alderdiek eszenifikazio bat egin dute, kontrolatzen dituzten erakundeetan beren onura hutsa lortu nahian.

Eusko Legebiltzarrak izena galdu du, bere irudiari kalte handia egin dioten jarrerak hartuz.

Alde batetik, Legebiltzarreko Mahaiak onartu du bere buruari exilioko Kurdistango Parlamentua deritzonak biltzar bat egitea, nahiz eta hartan nagusi den alderdi politikoa, PKK, edozein erreferentzia demokratikotatik urrun egon; ondorioz, instantzia konstituzionaletan gogorarazi behar izan da ekimenaren desgokitasun juridiko eta politikoa. Bestetik, Lizarrako alderdiek erabaki dute nazioarteko behatzaileak Euskadira etortzeko eskatzea, baina NBEk berak balioagabetu du eskaera hori. Era berean, gehiengo nazionalistak sentiberatasun gutxi

agertu du terrorismoaren biktimen inguruan, ez duelako eratu nahi izan ponentzia bat haien egoera berezia aztertzeko, ez dielako esker onik erakutsi, eta ez duelako onartu gizarte osoak haiekin duen zorra.

Jaurilaritzak, harrigarriro, lanuzte bat sustengatu berri du. Lan-etendia estrategia politiko berezi baten barruan egon da. Hala, berriz ere agerian gelditu da Ibarretxeren gobernuak ez duela ezagutzen Euskadiren pluraltasuna, eta, beraz, interes publikoa, gizarte osoarena, bilatu beharrean, postulatatu nazionalistek soilik jarraitzen diela, Lizarrak zehaztutakoei, alegia.

Bestalde, independentzia eta burujabetzarantzko bidean, udalak erabili egin dira organo iraunkor bat eratzeke; arrakastarik gabe, ordea. Baina horrek deformatu egin du Zuzenbidezko Estatuak erakunde horientzat aurreikusten duen eginkizun demokratikoa eta berezia. Izan ere, udalak herritarrekiko hurbiltasunean oinarritzen dira, bai eta denentzat lan egin behar dutela onartzean ere, eta ez soilik gizartearen zati batentzat.

Ez dakigu zein izango den hurrengo urratsa izena galarazteko ahalegin horretan, baina berriz ere gogoeta eta seriotasuna baino ezin diegu eskatu, erakunde demokratikoen irudi txarra zabaltzen ari direnei, denonak baitira, eta denontzat, nola nazionalistentzat hala ez direnentzat, eta guztien ongia bilatzea baita haien egitekorik behineana.

• Erredakzioan itzulia

gogoratuz

• JOXAN ELOSEGI •

• Duela 161 urte

Muñagorri

1838ko apirilaren 18an, lehen gerra karlistako bosgarren urtean, ezagutarazi zuen Jose Antonio Muñagorri bere proklama ospetsua, Bakea eta Foruak lemapean. Bertso-lariak egin zuen gainerakoa: bertsoz zabaldu zen deialdi haren aldarria Euskal Herriko bazter guztietara.

Berastegierra zen Muñagorri. Eskribauak zituen aita eta aitona, eta bide horretatik jo zuen berak ere gattetan. Halaz ere, negozioetarako usaina bazuelarik, ola jaun eta herri lanean kontratista jardun zuen batez

ere, eskribautza erabat bazter utzi gabe. Goitik behera geldiarazi zituen gerrak Muñagorriren proiektuak. Hasiaren Don Carlosen alde jokatu bazuen ere, gerra-urteak igaro arau ohartu zen euskaldunek afera hartatik atarramendu onik ez zutela aterako. Hutsalak ziren dinastia-kontu haiek guztiak, bost axola zuela Madrilen errege zein zen, baldin erregek foruak zin egiten bazituen.

Harreman ugari gizona izaki, alde bateko eta besteko buruzagiekin hasi zen hizketan, gerra buka eta fo-

ruak iraunaraziko zituen irtenbidearen alde. Dinastia-kontuak eta foruen afera guztiz bereizi behar ziren horretarako. Mintzatu zen liberekin. Espainiako buruzagi liberalen kasuan, ongi hartu zituzten asmo haiek, urrats taktiko garrantzitsua izango zen hura, foruen defentsaren aitzakiarik gabe nekez eutsiko baitzion Don Carlosek bere armadari. Mintzatu zen karlistekin; begi onez hartu zuten haien arteko hainbat guralburuk, graduazioa eta bizibidea ziurtatzen bazitzaizkien. Aurrean bi-

dali zuten Don Carlosek eta enparauek, harenik deus ere jakin nahi ez zutela. Azkenean, inork aintzat hartzen ez zuela ikusirik, bere soldadutaldea antolatuta zuen Muñagorri bakearen aldeko proklama gauzatzen hasteko. Helburua, Don Carlos Euskal Herrikan kanporatzea. Alferrik berriro ere. 1839, Bergarako Besarkadak eman zion gerrari errematea, liberalak nahi moduan eman ere.

1841. urtean hil zuen Muñagorri soldadu txapelgorri ohi batek Eratsungo Pilotasoro gainean. 47 urte zituen. Hirugarren bidetik jo nahi izan zuen eta, besteak beste, liberal eta karlista askoren gorrotoa jaso zuen. Historiaren kontra jotzea da hirugarren bidea, etengabe ari zaigu Historia horrelakorik ez dagoela erakusten. Saiatuak gara, ordea, eta saiatu egiten gara.